

---

## Itsaslabarretako ezegonkortasunak aztertze-ko metodologia berria


Itsaslabarretako ezegonkortasunak aztertze-ko metodologia berri bat garatu dute EHUko geologo batzuek. Tresna oso baliagarria da, eremu horietan segurtasun-neurriak hartu behar direnean, ingurumena eta ondare geologikoa ahalik eta gutxien kaltetzeko. Lehenengo azterketak Geoparkean egin dituzte, eta [Engineering Geology aldizkarian argitaratu dute han egindako lana](#). Euskal kostaldeko beste zenbait leku esanguratsurekin jarraitze-ko asmoa dute.

Geologia klasikoa eta teknologia berriak uztartu dituzte: alde batetik, betiko landa-lanen bidez bildutako informazioa, eta, bestetik, drone baten bidez lortutako puntu-hodeiak eta software bidez sortutako 3D-ereduak. "Informazio guztia elkartuta, iraganeko eta gaur egungo prozesuak aztertzen ditugu, etorkizunean zer gerta daitekeen iragartzeko", azaldu du Jon Ander Clemente Momoitio EHUko geologoak. Haren doktoretza-tesiaren lehen urratsa izan da argitaratu berri duten lana.

"Oso emaitza onak lortu ditugu", dio Clementek. Eta aukera izan dute, gainera, sortzen dituzten ereduak iragarpen onak egiten dituztela ikusteko. "Abuztuan harri-jausi garrantzitsu bat gertatu zen Itzurunen. Bada, guk gure simulazioekin martxoan iragarri genuena gertatu zen, hain justu".

Simulazio horiekin jakin dezakete labarreko zein zati dauden erortzeko mugan, eta harriak noraino eta zer energiarekin hel daitezkeen. Tresna oso erabilgarria izan daiteke ondare geologiko edo natural handiko guneak kudeatzeko estrategiak garatzeko.

"Ingeniaritza klasikoan, lehenengo gauza babes-neurriak eraikitzea izaten da. Guk lehenengo ikerketa egitea aldarrikatzen dugu, eta ikerketa horren arabera hartzea behar diren neurriak, ingurunea eta ondarea ahalik eta gehien zainduta".



ARG.: Jon Ander Clemente.

Adibidez, Itzurungo alde batean ikusi dute nahikoa litzatekeela metro bateko hesi bat eta landaredia ezartzea. "Landaredia oso eraginkorra da; harri txikiak harrapatzen ditu, eta handiak asko frenatzen ditu", azaldu du Clementek. Bestetik, proposatzen dute arrisku-mapa moduko batzuk egitea, Geoparkearen sarreretan jartzeko, adibidez. "Gorritz markatuko litzateke labarretik eroritako harriak noraino irits daitezkeen, gero 2-3 metroko segurtasun-tarte bat utzi, eta, berdez, segurtasun handiko eremua".

Hala ere, Clementek azpimarratzen du ezinbestekoa dela jendeak aintzat hartzea labarrak ingurune aktiboak direla: "Ingurune estatiko gisa ikusetetik, ingurune dinamiko gisa ikustera pasa behar dugu. Pertzepzio-aldaketa hori ezinbestekoa da, segurtasunaren aldetik egiten dugun lanak balio dezan". ●